



◆ PELOTA

Ioritz Arrieta Lezoko Torneoko txapeldun

Asteburuan pelota txapelketa ezberdinetan aritu dira herriko pelotariak. Lezoko torneoko finalean, jubenil mailan, Ioritz Arrieta eta Berrizko Perosanzek osatutako bikoteak 22 eta 16 irabazi zuen, Ezkurdia eta Zubiriren kontra. Arrietak ondo jokatu zuen, sakearekin min haundia egin zion bikote aurkariari eta bere bikotea oso ondo lagundu zuen. Perosanz torneoko pelotaririk onena izendatu dute, bere kategorian. Bestalde Euskal Jaiak torneoa hernaniarrek ez zuten finalik irabazi. Kadete mailan, Lujanbio eta Elorzak 22 eta 20 galdu zuten, Aurrera Saiatz taldeko Maiza eta Labakaren kontra. Jubeniletan, Aizpitarte II eta Otaegik 22 eta 19 galdu zuten, Zumaia eta Donostiako Iriondo eta Perezen kontra. Bestalde, datorren asteburuan hasiko dituzte mutilek Gipuzkoako Txapelketako partidua. Guztira C.D. Hernaniko 11 taldek jokatu dute. Helburua txapelaren bat edo beste eskuratzea izango da, baina batez ere, senior talderen bat aurreneko mailara igotzea nahi lukete. ■

◆ ATLETISMOA

Hasi da Eskola Kirola

Hasi da atletismoko Eskola Kiroleko denboraldia. Entrenamenduak astelehen eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 17:30etatik 18:30etara. Eskola kirolaz aparte, atletismoan aritu nahi duten neska mutilak ere parte hartu dezakete entrenamenduetan. Horretarako zortzi urte edo gehiago izan behar dira. Federatuek astelehen, astearte eta ostegunetan izango dituzte entrenamenduak, arratsaldeko 18:45etatik 20:00etara. ■

❖ MUGIKORTASUNA IRAUNKORRAREN ALDEKO ASTEA

Mahaingurua izango da gaur eta bertan aztertuko dute herria garraio aldetik nola dagoen antolatuta

Herriko hirigintza antolaketa eta herriko garraioa aztertuko dituzte bertan, eta baita mugikortasunean eragina duten faktore ezberdinak ere. 19:30etan hasita, Biterin.

MUGIKORTASUN Iraunkorraren Aldeko Astea hasiko da gaur. Mugikortasunaren inguruko gogoeta Europako herrialde askotan izango da, eta Hernaniko Udalak bat egin du ekimenarekin. Mugikortasunaren gaia zabala da, aste honen helburua horren inguruko gogoeta zabaltu eta herritarrek kontzientizatzea da: kotxeaz aparteko garraio bideak bultzatu eta ezagutarazi, herriko jendeak herrian barrena eroso ibiltzeko dituzten oztopoak identifikatu, ingurumenaren garraio mota ezberdinek duten eragina, eta abar.

Gaur bertan gai guzti hauen berri jakin eta eztabaidatzeko aukera izango da, *Hernani eta mugikortasuna* izeneko mahainguruan. Bertan, Pello Lozano Arnasa plataformako kideak hitz egingo du, unibertsitateko geografiako irakaslea ere badenak. Harekin batean Imanol Jimenez ariko da, udal arkitektoa. Hitzaldian herriko mugikortasunean eragina duten faktoreak aztertuko dituzte: herria geografikoki aztertuko dute, eta baita Arau Subsidioarioak bezalako tresna eta arauak ere, beti ere mugikortasun sos-

tengarriagoa lortzeko helbuarekin. Hitzaldia, arratsaldeko 19:30etan izango da, Biteri kultur etxean.

Aste osoan zehar ekimenak

Gaurko mahainguruaz gain, ekintza ugari izango dira astelehena bitartean, mugikortasunaren inguruan.

Bihar, gaztetxoentzako ipuin kontaketa izango da, 17:30etan, Biterin. Bestalde, herritarrek egindako *Hernaniri begirada bat* dokumentala ikusteko aukera izango da bihar. Dokumentala Biteriko laburmetrai tailerreko kideek

osatu dute, Goiz Eguzki jubilatutako etxeko kideen eta herriko zenbait ezindu fisikoren parte hartzearekin. Dokumentalean, besteak beste, ezindu fisikoek herrian barrena eroso ibiltzeko dituzten zailtasunak azaltzen dituzte, eta adineko jendeak herria nola aldatu den azalduko dute: alderatu-ko dituzte garai batean eta gaur egun herritarrek batera eta bestera ibiltzeko zein garraio bide erabiltzen zituzten, hirigintza aldetik herria nola aldatu den, eta abar. Dokumentala 19:30etan ikusi ahal izango da, Biterin. ■

Berdintasun Kontseiluaren kurtso berriko lehen bilera, gaur

BERDINTASUN Kontseilua bilduko da gaur, ikasurte berriko aurreneko bileran. Berdintasun Kontseilua Udal Berdintasun Sailarekin batean sortu zen, duela sei urte. Talde honetan herritarrek biltzen dira, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan lan egin nahi dutenak, emakumezkoak zein gizonezkoak. Bertan zehazten dira Udal Berdintasun Arloaren plangintza, programa, eta ekimen gehienak. Kontseilua irekia da eta nahi lukete ahalik eta herri-

tar gehienek parte hartzea. Oporren ondorengo aurreneko bilera gaur egingo dute, 19:30etan, Biterin.

Jabetze Eskoletarako matrikula zabalik

Berdintasun Arloak Jabetze Eskolak antolatu ditu aurtengo ikasturtean ere. Emakume literatura, sedukzioa, antzerkia eta feminismoaren historia ezagutzeko aukera izango da. Izena ematea irailaren 25a aurretik egin behar da. Informazio gehiago: 943 337010/irantz-j@hernani.net. ■

Sagastiyako ekimen pribatuko etxeak aztergai Gobernu Batzarrean

SAGASTIYAN, ekimen pribatuak sustatuta egingo diren etxebizitzetaz hitz egingo dute gaur Gobernu Batzarrean. Zehazki, etxeak egiteko jarduerak programaz hitz egingo dute. Programa hau onartuko balitz etxeak egiteko hurrengo urratsa izango litzateke urbanizazio proiektua onartzea, hau da, kainuzulo (alkantarilla), argia, telefono lineak eta horrelakoak jartzeko proiektua. Ekimen pribatuko etxe hauek, Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen etxebizitzetza gaialdean eraikiko lirateke. Aurreikusita dago, 8 villa bifamiliar eta babes ofi-


zialeko beste 22 etxebizitza eraikiko direla eremu honetan.

Herrian telekomunikazio ekipak kokatzeko leku posibleetatik hitz egingo da. Proposatuko da momentuz ekipa eta antena gehiago ez jartzea, eta beharko balira, Santa Barbara eta kantera inguruan jartzea. 14:00etan, udaletxean.

Bozeramale batzordea

Bozeramale batzordea ere izango da gaur. EBk aurkeztutako mozioa aztertuko da, Europako Batasunak lan orduak antolatzearan inguruan ateratako araudiari buruz. 12:30etan hasita. ■

DOBERA SARIA IV ARTELANEN LEHIAKETA



Dobera Euskara Elkartek, Hernaniko artisten sorkuntza sustatu eta aitortzeko asmoz, eta artista horien lanak jendarean zabaltzeko bideak egitearren, ARTELANEN LEHIAKETA antolatu du DOBERA SARIAREN IV. edizioan.

IZEN-EMATEKO:

- Azaldu Dobera euskara elkarteak bulegora: Larramendi 11, behe (Hernani)
- www.dobera.com webgunean eskuragarri dagoen izen-emate fitxa bete eta bidali dobera@dobera.com-era.



musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 - behe ezkerre
943 33 12 33

Solfeoa
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria Modernoa

Biolontxelo

Tronpetak
Trikritika
Kitarra
Abesbatza
Armonia

Matrikula Zabalik (deitu 14:00etatik 18:00etara)

943 33 12 33 - 637 85 79 62

Alduentzako ikasketak bereziak - Talde txikiak - Solfeoa 4 urtetik

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Tenperatura igo eta 22-24 °Cra iritsiko da. Eguna fresko hasiko da baina eguzkiak epelduko du eguna. Laino batzuk izango dira, baina eguzkia nagusituko da. **BIHAR** Hego haizea dela eta tenperaturek gora egingo dute, 28-30 °Cra iritsi arte. Iluntzean lainoak ugari eta zaparradak bota ditzake. (euskaime)

Garagardo eta menu bikainak dastatzeko aukera V. Garagardo Azokan

Ostegunean arratsaldeko 19:30etan inauguratuko da V. Garagardo Azoka, eta igandera bitartean izango da Atsegindegi plazan.

OSTEGUNEAN hasi eta igandea bitartean nahikoa garagardo hartzeko eta garagardotegiko menua dastatzeko aukera izango da Atsegindegin izango den V. Garagardo Azokan. Arratsaldeko 19:30etan hasiko da eta aurtengoan Hernaniko Kronika izango da Azoka inauguratuko duena, Joxelu Larretxearen esanetan «azken urteetan errugbiaren alde egindako lana eta laguntzagatik esker ona emateko modu egokia da, errekonozimendu moduan».


Garagardoak eta menua

Aurtengoan ere, Garagardo Azokako eskaintza ez da makala. Guztira 13 garagardo inguru izango dira aukeran, horietatik bat edo beste berriak, ezagunen artean honako hauek: Heineken, Guinness, Murphy's eta Paulaner markak.

Gainera, garagardo on batek menu on baten beharra izaten du Garagardo Azokan, eta horretan ere ez dute hutsik egin antolatzaileek aurtengoan. Jateko tradizionalak diren kodilloa, saltxitxak eta euskal oiloa (luma gorria) izango dira.

Monologoa, errugbi jokoak eta mus txapelketa azkarra Urtetik urtera harrera hobia duen azoka dela kontuan izanda, antolatzaileek aurtengo ediziorako zerbait berezia antolatu dute, monologo bat, alegia. Larunbat gauean izango da, afalostean, 23:00ak inguruan. Bertara afaltzera edota zerbeza ezberdinak dastatzera hurbiltzen direnek umorez betetako monologoak entzun eta ikusteko aukera izango dute *Tambana* taldearen eskutik.

Igandean, umeentzat, Hernaniko Errugbi Eskolak antolatuta errugbiarekin zerikusi zuzena duten jokoak izango dira. Biteri kultur etxean arratsaldeko 17:00etan hasiko dira eta helburua da umeak errugbiarekin lehen hartu emana izaten hastea, jokoen bidez. Egun berean baita ere, bazkaldu ondoren, errugbi



Aurtengoan garagardo berriak ere izango dira azokan.

● **Umorezko monologoa, errugbiarekin zerikusia duten haurrentzako jokoak eta mus txapelketa izango dira aurtengo garagardo azokan.**

taldean ibili ziren beteranoak mus txapelketa azkarra jokatuko dute.

Lau egunetako ordutegia

Garagardo Azoka ostegun eta ostiralean arratsaldeko 19:30etatik gaueko 01:00a ingurura arte izango da zabalik. Asteburuan berri, ordutegi zabalagoa izango da. Larunbat eta igandean 12:30etan irekiko dute eta 16:00ak arte egongo da jan eta edateko aukera. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara berri, garagardoa hartzeko aukera bakarrik izango da. Ordu horretatik aurrera afaltzeko aukera

izango da gaueko 01:00a arte. Lau egun hauetan azoka itxeko ordua momentu horretan bertan dabilen jendeak baldintza dezake.

Errugbiaren aldeko apostua Askorentzat Garagardo Azoka garagardoa dastatzeko edo ohizkoa ez den janaria jateko aukera izan daiteke, baina antolatzaileentzat honen esanahia haruntzago dioa. Azokan ateratako dirua Hernaniko Errugbi taldearentzat aurre kontuko herena da, eta denboraldian zehar egin behar dituzten bidaia, ekipamendu eta abarrentzako behar-beharrezkoa dute.

Gainera, Joxelu Larretxearen esanetan, hernaniar askorentzat «azoka topagune antzeko bat ere bada urte guztian zehar ikusten ez diren auzo ezberdinetako bizilagunak bertan ikusten baitira». Beraz, ostegunetik aurrera izango da nahikoa aukera. II

HELDUEN HEZKUNTZA IKASTETXEA

Matrikula egiteko aukera

Helduen Hezkuntza Zentroa ikasturte berria prestatzen ari da eta dagoeneko egin daiteke matrikula. Oinarritzko titulaziorik ez dutenek, idazten eta irakurtzen ikasi dezakete, baita euskera, ingelese, frantsesa eta informatika ere. Horrez gain, Bigarren Hezkuntzako Graduatua ere lor daiteke. 25 urtetik aurrerakoek Unibertsitaterako edo Goi Mailako Heziketa Zikloetarako sarrera froga presta dezakete. Atzeritarrei gaztelania ere irakasten diete. Helduen Hezkuntza Zentroa Antziolako eskoletan dago, 62garren zenbakian. Ordutegia: 10:00-12:00/17:00-19:00. Telefonoa: 943 33 53 18. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


XIX URTEURRENA

Juanito Oiarbide Aranburu

'TXILIBITA'
1989-9-16

*Batek maite duena
darama berekin,
beti bizirik izango
zaitugu gurekin.*

Etxekoak
Hernanin, 2008ko irailaren 16an



IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Victor Hugo kalean. 2 logela, saloia, sukaldea, berritua eta altzariekin (240.000 euro). **Deitu: 639 054 565.**

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. **SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).**

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, amasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... **SASOIKO (Marieluts 4 behe).** 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurren garapena osasuntsua eta zoriontsua izateko. **SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)**

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. **Tel.: 656 78 64 15** (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. **Deitu: 943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin* egindako gorputz tratamenduak eta *"vacumterapia"*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. **Atzieta 2, behe.** **Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

MARI FE

ARRANDEGIA

ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 ~ 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00

NAGUSIA 36 ☎ 943 550 489